



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.04.15

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa

Ez bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko apirilaren hamabostean, 08:00ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeke.

1. Aurreko akta onartzea.
2. 2019/558 Dekretuaren berri ematea (2019/12 eta 2019/13 faktura-zerrendak).
3. 2019/559 Dekretuaren berri ematea (2019/14 eta 2019/15 faktura-zerrendak).
4. Alkatetza dekretu hauen berri ematea: 2019ko martxoaren 28tik apirilaren 4ra.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko apirilaren 8an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. 2019/558 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/12 ETA 2019/13 FAKTURA-ZERRENDAK).

Idazkariak 2019/558 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Zk.: 2019/ 558

Tolosa Udaleko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabalek emana.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera,



TOLOSAKO
UDALA

alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

12 zenbakia duena, 94.556,07 eurokoa

13 zenbakia duena, 47.400,72 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Kontuan izan behar da, era berean, alkateak duela gastuak onartzeko ahalmena (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 21.1 f) artikulua. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa; 41. 2 artikulua).

Horiek horrela, alkateak ondorengo hau

EBATZI DU:

LEHENA.- *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

12 zenbakia duena, 94.556,07 eurokoa

13 zenbakia duena, 47.400,72 eurokoa

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

3. 2019/559 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/14 ETA 2019/15 FAKTURA-ZERRENDAK).

Idazkariak 2019/559 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Zk.: 2019/ 559

Tolosa Udaleko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabalek emana.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



TOLOSAKO
UDALA

Hori horrela, alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

14 zenbakia duena, 188.771,67 eurokoa.

15 zenbakia duena, 1.491,74 eurokoa.

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Kontuan izan behar da, era berean, alkateak duela gastuak onartzeko ahalmena (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 21.1 f) artikulua. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa; 41. 2 artikulua).

Horiek horrela, alkateak ondorengo hau

EBATZI DU:

LEHENA.- *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

14 zenbakia duena, 188.771,67 eurokoa.

15 zenbakia duena, 1.491,74 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

4. ALKATETZA DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 4RA.

Alkatetzak 2019ko martxoaren 28tik apirilaren 4ra bitartean (DK 2019/515-2019/569) egin dituen dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honakoak dira:

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
515	2019	28/03/2019	HIRIGINTZA	ALDABATXIKI AUZOKO 196 FINKA REGISTRALA BITAN BANATZEKO LIZENTZIA EMATEA
516	2019	28/03/2019	PERTSONALA	IVAN VILA UDALTZAINGOKO KARRERAKO FUNTZIONARIO
517	2019	28/03/2019	PERTSONALA	TRONPETA IRAKASLEAREN KONTRATAZIOA (MIGUEL ALONSO)



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
518	2019	28/03/2019	KONTUHARTZAILLETZA	TOLOSAKO UDALAREN 2018KO LIKIDAZIOA.
519	2019	28/03/2019	KULTURA	ARTXIBO HISTORIKOAREN BERRINSTALAZIORAKO BARBÁCHANO & BENY ENPRESAK EGINIKO LANENGATIK AURKEZTUTAKO FAKTURAREN ORDAINKETA ONARTZEA
520	2019	28/03/2019	KULTURA	IRURAKO IKASTOLARI LEIDOR UZTEA EÑAUT ELORRIETAREN EMANALDI MUSIKALA ANTOLATZEKO MAIATZAREN 3AN.
521	2019	28/03/2019	HIRIGINTZA	BEOTIBAR KALEA 6-5.ESKUBIKO ETXEBIZITZAN TEILATUAN ARGIZULO BAT EGITEKO OBRA BAIMENA
522	2019	28/03/2019	UDALTZAINGOA	CUADRA BIDEAN S.L. ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA ONARTZEA
523	2019	28/03/2019	UDALTZAINGOA	CUADRA BIDEAN SL ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA ONARTZEA
524	2019	28/03/2019	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO 21 (-3) APARKALEKUAREN TASAZIOA
525	2019	29/03/2019	FESTAK	BERAZUBI ELKARTE SOZIOKULTURALARI APIRILAREN 4TIK 7RA II GASTRONOMIA JARDUNALDIAK ANTOLATZEKO BAIMENA EMATEA.
526	2019	29/03/2019	ALKATETZA	UZTURRE ASISTENTZIA-GUNEA HANDITZEKO LURZORU PUBLIKOA ZATITZEKO BAIMENA EMATEA
527	2019	29/03/2019	PERTSONALA	UDALTZAIN BERRIA (IKER JAIRO)
528	2019	29/03/2019	EUSKERA	GARABIDE ELKARTEARI 2018KO DIRULAGUNTZAREN BIGARREN ZATIA ORDAINTZEKO. (1.000,00 €)
529	2019	29/03/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	APIRILEKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEN ONARPENA
530	2019	29/03/2019	PERTSONALA	IKASTAROA (ACTUALIZAC. JURÍDICA LOCAL 2019-04-04)
531	2019	01/04/2019	AZOKAK	III ARDO TXURI TXOKOA EGITEKO BAIMENA ONARTZEA
532	2019	01/04/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO LOKAL HUTSEN AZTERKETAREN ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPEN DEKRETUA
533	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	H.E. G.-RI UDAL-LAGUNTZAREN ONARPENA
534	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	S. M. UDAL-DIRULAGUNTZAREN ONARPENA
535	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	M. R. G.REN APIRILEKO UDAL-DIRULAGUNTZAREN ONARPENA
536	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	M. G. LL.-REN APIRILARKO UDAL-DIRULAGUNTZAREN ONARPENA
537	2019	01/04/2019	HIRIGINTZA	IURRE AUZOA 8-5B ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
538	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	N. E. B.-REN APIRILEKO UDA-DIRULAGUNTZAREN ONARPENA
539	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	S. O.-REN APIRILAREN UDAL-DIRULAGUNTZAREN ONARPENA
540	2019	01/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	2018. URTEKO GIZARTE ZERBITZUAN ETA OSASUN SAILEAN LAN EGITEGATIK HAINBAT ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA EMATEA.
541	2019	01/04/2019	KULTURA	ORIAKO TXIRRINDULARI ESKOLARI LEIDOR UZTEA AURKEZPEN BAT EGITEKO APIRILAREN 5EAN.
542	2019	01/04/2019	OBRAK	CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.L.- RI SAMANIEGO IKASTETXEKO ARRAPALA EGITEKO JARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEA



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
543	2019	01/04/2019	OBRAK	GUREAK BERDEA, S.L.U- ENPRESARI TOLOSAKO PARKE, LORATEGI, BERDEGUEN ETA KALEKO ZUHAITZEN MANTENTZE LANAK EGITEKO JARRI ZUEN FIDANTZA ITZULTZEA.
544	2019	02/04/2019	BERDINTASUNA	2018KO BERDINTASUN SAILAREN DIRU LAGUNTZEN KITAPENA, 2. ZATIAREN ORDAINKETA ONARTZEA
545	2019	02/04/2019	HIRIGINTZA	GUDARI KALEA 6KO EIT TXOSTENeko HAINBAT KONPONKETA EZ EGITEKO ERREKLAMAZIOA EZETSI ETA 2016/1809 DEKRETU BIDEZ AGINDUTAKO PREMIAZKO LAN GUZTIAK EGITEKO AGINTZEA
546	2019	02/04/2019	OBRAK	OLARRAINGO AUZO ELKARTEAN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO OBRAKO OSASUN ETA SEGURTASUNA PLANA ONARTEZEA
547	2019	02/04/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 5-1.SOLAIRUKO "KARMENTXU II" PENTSIOAN ERREFORMA PARTZIALA EGITEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA
548	2019	02/04/2019	KONTUHARTZAILZETA	2019KZZG0012. 2019KO ZIRKULAZIO ZERGAREN ZATIKAPEN ESKAERA ONARTZEA.
549	2019	02/04/2019	KONTUHARTZAILZETA	2019KZZG0011. 2019KO BI IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ZERGEN ZATIKAPENA ONARTZEA.
550	2019	02/04/2019	KONTUHARTZAILZETA	2019KZZG0009. KOTXEAREN ZERGA ZATIKETA ORDAINTZEKO ESKAERA ONARTZEA.
551	2019	02/04/2019	KONTUHARTZAILZETA	2019KZZG0010. ZERGAREN ZATIKAPEN ESKAERA ONARTZEA.
552	2019	02/04/2019	KULTURA	2018KO LEHIA BIDEZKO KULTURAKO DIRULAGUNTZEN KITAPENAK ONARTZEA ETA AZKEN ZATIEN ORDAINKETAK ONARTZEA
553	2019	02/04/2019	OBRAK	ONARTZEA: URKIZUKO UR DEPOSITOAREN PROIEKTUA
554	2019	02/04/2019	KULTURA	AMAROTZEKO AUZO ELKARTEARI LEIDOR UZTEA PEPA PLANAREN IKUSKIZUNA ANTOLATZEKO 19/05/17AN
555	2019	03/04/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 28 BEHEKO "LAIER" TABERNAREN JARDUERA BAIMENA IRAUNGITZEA
556	2019	03/04/2019	KULTURA	M.A.E.Y. UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASLEARI, SALBUESPEN GISA, MATRIKULAREN %80A ITZULTZEA.
557	2019	03/04/2019	FESTAK	PODEMOS-I TRIANGULO A PLAZAREN ERABILERA UZTEA 2019KO APIRILAREN 5EKO 10:00ETATIK APIRILAREN 6KO 8:00ETARA, STAND BAT JAR DEZATEN.
558	2019	03/04/2019	KONTUHARTZAILZETA	12 ETA 13 ZK.DUN FAKTUREN ZERRENDAK ONARTZEA
559	2019	03/04/2019	KULTURA	HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA KITAPENA ONARTU ETA BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA ONARTZEA
560	2019	03/04/2019	HIRIGINTZA	EITE-AREN ONDORIOZ, HAINBAT KONPONKETAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKATU ZUTEN NAFARROA ETORBIDEA 2KO ERAIKINEAN ETA ERREKERIMENDUA BIALTZEA
561	2019	03/04/2019	OBRAK	ONARTZEA :UZTURPEK AURKEZTUTAKO OSASUN ETA SEGURTASUN PLANA AMARoz AUZOETXEKO OBRETARAKO
562	2019	03/04/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 7 -4. A ETXEBIZITZAREN TASAZIOA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
563	2019	04/04/2019	FESTAK	F.J.A.A.-RI 2019KO APIRILAREN 6AN SAN FRANTZISKO ELIZAREN AURREAN HAIMA BAT JARTZEKO BAIMENA EMATEA
564	2019	04/04/2019	KULTURA	2019KO KULTURAKO LEHIA BIDEZKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA
565	2019	04/04/2019	PERTSONALA	IMANOL AGIRRE. EPAIKETA.
566	2019	04/04/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 7 BEHEA B ETXEBIZITZA TASATUA ETA BERE ERANSKINAK SALTZEKO BAIMENA EMATEA
567	2019	04/04/2019	BERDINTASUNA	DEIALDIA ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEN DUTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEEI EDO PERTSONA FISIKOEI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO.
568	2019	04/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	L. .-I ETXEBIZITXAREN ERABILERA LAGATZEA
569	2019	04/04/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	A. C.-I ETXEBIZITZAREN ERABILERA UZTEA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA